



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzak 9

Vitoria-Gasteiz, 9 de mayo de 2017

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK AURTENGO AURREIKUSITA DAGOEN URTEKO ARAUGINTZA PLANA ONARTU DU

- **Plana IREKIA gardentasun atarian argitaratuko da, herritarren informazioa, lankidetzeta eta parte hartzea bermatzeko**

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaurko bileran aurtengo Urteko Araugintza Planari. Planak jasotzen ditu 2017an zehar Jaurlaritzako sail bakoitzak onartzea espero dituen ekimen arautzaileak (legeak eta dekretuak).

Gaur hartutako erabakia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotakoaren esparruko da; eta horren arabera, Eusko Jaurlaritzak Urteko Araugintza Plana argitaratuko du eta bertan jasoko dira hurrengo urtean onartzeko eramango diren legezko edo arauzko ekimenak.

Plana onartu ondoren, IREKIA gardentasun atarian argitaratuko da, herritarren informazioa, lankidetzeta eta beharrezko parte hartzea bermatzeko asmoz.

2017ko URTEKO ARAUGINTZA PLANA

LEHENDAKARITZA

- Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko prozedura garatzen duen dekretu-proiektua.
- Atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko, euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzak arautzeko dekretua aldatzeko den dekretu proiektua.
- Garapenerako lankidetzaren esparruan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak arautzen dituen dekretu-proiektua.
- Genero ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketak sustatzeko, lankidetzeta erakundeei emango zaizkien diru-laguntzak arautzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa sortu eta arautuko duen dekretu-proiektua.

2. GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren dekretu-proiektua..
- Kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretua aldatzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen 2017ko katalogo eguneratua onartzeko den dekretu-proiektua.
- Euskarari buruz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko xedapenak garatzeko den dekretu-proiektua.
- Toki erakundeek eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez den beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatzeari buruzko txostenak egitea arautzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren argitalpenak arautzeko den dekretu-proiektua.

3. EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK

- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Euskadiren Landa Garapenerako 2015-2020 Programan aurreikusitako diru-laguntzen esparru araudia ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Nekazaritza eta baso ustiatzei aholkularitza ematen dizkieten erakundeei buruzko dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta baso ekoizleen taldeei, eta horien elkarte edota federazioei buruzko dekretu-proiektua.
- Baso-faunaren aleentzat aurreikusitako balioak ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan, ikertzaile eta teknologoak prestatzeko laguntzak arautzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan urpeko jarduerak eta urpekaritza profesionala baimentzeko eta horiek kontrolatzeko baldintzak ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Nekazaritzako eta itsasketa eta arrantzako prestakuntzen alorreko batzorde mistoen eta jarraipen batzordeen osaketa eta funtzionamendu araubidea zehazteko den dekretu-proiektua.
- Azaroaren 21eko 235/2000 Dekretua indargabetzeko dekretu-proiektua. Dekretu haren bitartez, behi-okela edo abelgorrien haragia eta haren ondoriozko produktuak etiketatzeko aukerako sistema ezartzeko arauak eman ziren Euskal Autonomia Erkidegorako.
- Sendotu Abere programako laguntzen dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzain elkarteei diru-laguntzak ematea arautzeko den dekretu-proiektua.

4. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika organo espezifikoaren sortu eta bere antolaketa eta funtzionamendua ezartzeko den dekretua aldatzeko dekretu proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa arautzen duen erregelamendu onartzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal eta lurralde zerbitzu sozialetan arrisku eta babesgabezia egoeren larritasuna baloratzeko tresna eguneratzea onartzeko den dekretu-proiektua.
- Desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroen dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomi Erkidegoko pertsona zaharrentzako zentroetako dekretu-proiektua.

5. INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa ezartzekoa den dekretu-proiektua.
- Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektua.
- Lurzoruaren ondare publikoari buruzko dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen azterketa teknikoa (EAT) eta azterketa horien erregistroa arautzeko den dekretu-proiektua.
- Kreditu erakundeekin 2018-2019 bitartean finantza-lankidetzan aritzeko dekretu-proiektua.
- Arkuko labe elektrikoaren zepen erabilpena arautzeko dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidego lurzoru kutsatuei buruzko 4/2015 Legea garatzeko dekretu-proiektua.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako baso ustiatzearen titularrak ekonomikoki konpentsatzeko diru-laguntza sistema bat onartzeko den dekretu-proiektua.

6. OGASUNA ETA EKONOMIA

- Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa ezartzekoa den dekretu-proiektua.
- Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2017ko programa garatzen duen dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua aldatzeko den dekretu-proiektua.
- Aseguru bitartekarien jardura antolatzeari eta ikuskatzeari buruzko dekretu-proiektua.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzeko dekretu-proiektua.

7. HEZKUNTZA

- Hezkuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren menpeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako irakasle espezialista eta adituak kontratazeko araubidea ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko lan kontratupeko langile ez irakasleen lanpostu zerrendari buruzko dekretu-proiektua.
- Arte irakaskuntzan eta irakaskuntza publikoko edo kultura alorreko beste lanpostu batean aritzearen bateragarritasuna interes publikokotzat aitortzeko den dekretu-proiektua.
- Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua. Dekretu haren bitartez, prozedura arautzen da Hezkuntza Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko prozedura.
- Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzaren eskumena duen sailaren agindupeko herri-ikastetxeetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzea nahiz ikasturtea hasi eta gero ikasleak eskolatzea arautzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoekin lagundutako ikastetxeetan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduatako unibertsitate tituluen practicum-a egitea eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntza Irakaskuntzan irakasle jarduteko gaitzen duen masterra arautzeko den dekretu-proiektua.
- Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuaren antolaketa, funtzionamendua eta autonomiari buruzko dekretu-proiektua.
- Larrialdietako eta Babes Zibileko teknikariaren tituluaren curriculuma ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Larrialdien Koordinazioko eta Babes Zibileko goi-mailako teknikariaren tituluaren curriculuma ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Elektromedikuntza Klinikoko goi-mailako teknikariaren tituluaren curriculuma ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Eraikuntza Lanak Ikuskatzeko eta Antolatzeke goi-mailako teknikariaren tituluaren curriculuma ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan eskolak emateko, Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi tituluren curriculuma ezartzeko den dekretu proiektua: Nekazaritza- eta Abeltzaintza-jardueretako Oinarrizko Titulu Profesionala; Baso Ustiapenetako Oinarrizko Titulu Profesionala; Fabrikazio eta Muntaiako Oinarrizko Titulu Profesionala; Instalazio

Elektronikoetako eta Mekanikako Oinarrizko Titulu Profesionala; Itsasoko eta Arrantzako Jardueretako Oinarrizko Titulu Profesionala; Tapizgintzako eta Errezelgintzako Oinarrizko Titulu Profesionala; Beiragintza eta Buztingintzako Oinarrizko Titulu Profesionala.

- Azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren Eranskina aldatzeko dekretu-proiektua. Dekretu haren bidez, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezarri zen; eta eranskinean ezarri ziren prozeduran parte hartzeagatik aholkulariek, ebaluatzaileek eta ebaluazio batzordeek jasoko dituzten ordain ekonomikoak.
- Bitxigintza Artistikoko Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion goi-mailako heziketa-zikloaren curriculumaz ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak ematea arautzeko den dekretu-proiektua.
- Gradu-, Master- eta Doktoretza-tituluak lortzeko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezarri eta kentzeari buruzko dekretu-proiektua.
- Jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz Ikerkuntzarako Euskadi Saria arautzeko den dekretu-proiektua.

8. OSASUN SAILA

- Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko ekainaren 26ko 114/2012 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Dekretua, zeinaren bidez elikagai enpresa eta establezimenduen baimen sanitarioen eta komunikazioen erregimena arautzen baita eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai establezimenduen erregistroa (REACAV) sortzen baita.
- Esne Bankuak arautzeko den dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa sortzeko den urtarrilaren 11ko 3/2005 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu sanitarioetako erakundearen egituraren antolaketa arautzeko den dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Adikzioen eta Droga Menpekotasunaren gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean jasotzen den egitura instituzionala arautzen duena.
- 32/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzeari buruzko, aldatzen duen dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, 270/2003, azaroaren 4koa, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen dekretua aldatzen duena, 11/2016, uztailaren 8koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko, legeari egokitzeko.

- 447/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzeko, aldatzen duen dekretu-proiektua.
- Adinekoentzako egoitzetako farmaziako zerbitzuei eta sendagai-gordailuei buruzko dekretu-proiektua.
- Osakidetzako profesionalak era librean aukeratzea ahal bideratzen duen dekretu-proiektua.

9. TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektua.
- 81/2012 Dekretua, maiatzaren 22koa, bidaia-agentziei buruzkoa, aldatzen duen dekretu-proiektua.
- Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko jardun onen kodeak arautuko dituen dekretu-proiektua.
- Euskadiko Kontsumo Batzorde Aholku Emailea arautzen duen dekretu-proiektua.
- Erabilera turistikorako etxebizitzak eta erabilera turistikorako logeletako ostaturak arautzen duen dekretu-proiektua.
- Apartamentu turistikoak arautzen dituen dekretu-proiektua.

10. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den dekretu-proiektua.
- Offline zein online banatzen diren argitalpenen gordailua arautzen duen dekretu-proiektua.
- Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko Dekretua aldatzeko den dekretu-proiektua.
- BIKAIN - Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen duen dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortzeko den dekretu-proiektua.

11. SEGURTASUNA

- Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
- Larrialdiak Kudeatzeko legearen testu bategina onesteko den legegintzako dekretu-proiektua.
- Ikuskizun publiko eta jolas jardueren legea garatzen duen dekretu-proiektua.
- Autonomia Erkidegoko hauteskunde-batzordearen osaera argitaratzen duen dekretu-proiektua.
- Ertzaintzan jasotzen diren ordainsarien eta konpentsazioen araubidea partzialki aldatzen duen dekretu-proiektua.

- Sua itzaltzeko eta prebenitzeko zerbitzuetarako eta salbamendu-zerbitzuetarako Erakunde arteko Batzordea sortu eta arautzen duen dekretu-proiektua.
- Larrialdi eta babes zibilaren arloko kondekorazioak eta sariak arautzen dituen dekretu-proiektua.

12. LAN ETA JUSTIZIA

- Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektua.
- Doako laguntza juridikoari buruzko dekretu-proiektua.
- EAEn prebentzio sistemako laneko medikuntzaren diziplina prebentiboari buruzko auditoria edo kanpo-ebaluazioa egiteko prebentzioko zerbitzuek edo baimendutako erakunde espezializatuek bete beharreko jarduera sanitarioa arautzen duen dekretu-proiektua.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ADINGABEEN ARRISKU ETA BABESGABETASUN EGOERAK HAUTEMATEKO BALORA TRESNA EGUNERATZEN DUEN DEKRETUA ONARTU DU

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna (BALORA) eguneratzea onartu du.

Onartutako dekretuaren helburua da, arrisku- edo babesgabetasun-egoera bat dagoela zehazteko tresnaren eguneratzea onestea eta, halaber, egoeraren larritasuna zehazteko elementuak eta adierazleak finkatzea. Horri esker, arrisku-egoera arina edo neurrizkoa, egoera larria edo babesgabetasuneko egoera baten aurrean gauden zehaztuko da. 2011. urteaz geroztik bazegoen BALORA tresna arautzen zuen dekretu bat, baina haurrak eta nerabeak babesteko gaur egun indarrean dagoen arau-esparruaren ondorioz, hura eguneratu beharra zegoen.

Eguneratze honi esker, gainera, tresna hobetuko da. Izan ere, ezartze-prozesua, erabilera-maila, inpaktua eta orain arte erdietsi nahi ziren helburuen lorpenak profesionalek azaltzeko alde aurreko balorazioa egin da. Balorazio-prozesu hori burutu ondoren, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuetako arduradunek, teknikariek eta profesionalek, oro har, BALORA tresna era positiboan erabiltzen eta baloratzen zutela agerian jarri zen. Halaber, gehienen ustez, tresna horrek arrisku- eta babesgabetasun-egoeran zeuden haurren, nerabeen eta familien inguruan erabaki profesionalen kalitatea hobetzen lagundu zuen. Gainera, irizpide teknikoak bateratzen, eta udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuen barruan eta haien artean akordio maila handiagoak lortzen lagundu zuela, eta BALORA bere garaian sortu zeneko helburuei erantzuten ari zitzaiela uste zuten eta hala adierazi zuten. Iritzi horiek bildu ondoren, tresna eguneratu ondoren, bere garapena hobeto zehaztu ahal izango da.

Adingabeak babesteko arloan euskal administrazio publikoen esku-hartzea diferentea da adingabearengan eragina duen egoera zehatzaren (arriskua edo babesgabetasuna) eta arrisku-egoeraren larritasunaren arabera. Horregatik sortu zen BALORA. Tresna hori babesgabetasuneko egoeren larritasuna zehazteko, eta egoera horiek arrisku-egoera arin edo neurrizkoak edo larriak diren, edo babesgabetasun-egoera baten aurrean gauden zehazteko oinarritzkoa da.

Enplegua eta Gizarte Politikak

15,7 MILIOI EURO LANGILE OKUPATUEN PRESTAKUNTZA SUSTATZEKO

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek proposatuta, Jaurlaritzak, gaur egindako bileran, Lanbideren laguntzen deialdiei lotuta 15.700.000 euroko gastua baimendu du, EAEn langile okupatuen prestakuntza sustatzeko. Laguntza horien kudeaketan, Hobetuz Fundazioak —duela gutxi Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioan eraldatua— Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaile gisa jardungo du.

Hobetuz garatzen ari den jarduera Euskadiko enpresen, langileen eta ikastetxeen artean, etengabeko prestakuntzaren aldeko interesa sustatzera zuzenduta dago, baita jarduera horrek hedapen eta eraginkortasun handiena izan dezan lortzeko baldintzak sustatzera ere. Testuinguru honen barne kokatuta daude Gobernu Kontseiluak gaur diruz babestea onartu duen Lanbideren laguntzen bi deialdiak; alde batetik, langile okupatuentzako eskaintza-enplegurako prestakuntza-planak sustatzera zuzendutakoa eta, bestetik, enpresen aldetik prestakuntza-ekintza estrategikoak gauzatzen laguntzera zuzendutako deialdia.

Langile okupatuentzako zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko 12,56 milioi euro bideratuko dira. Laguntza-programa honen barne sartuta daude konpetentziak eta kualifikazioak hobetzera zein maila indibidualean langileen prestakuntzazko eguneratzera zuzendutako heziketa-ekintzak. Laguntza horiek jaso ahal izango dituzte, konpetentzia eta kualifikazio profesionalak hobetzera zuzendutako prestakuntza-ekintzak eskaintzen dituzten prestakuntza-erakunde guztiek, baldin eta dagokion Erregistroan behar bezala izena eman badute.

Programa honen bitartez diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan, EAEko langileek eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten pertsona ez-profesionalek hartu ahal izango dute parte. Era berean, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena eman duten langabeek ere hartu ahal izango dute parte. Hauen parte-hartzeak, dagokion plana osorik hartuta, gehienez, % 40koa izan beharko du; eta, aukeratutako prestakuntza-ekintzan parte hartzeko, Lanbideren Orientazio Zerbitzuek preskribatu izana gomendatzen da.

Beste 3,14 milioi euro, 35 langile baino gehiagoko enpresek edo 50 langile baino gehiagoko enpresa-taldeen bertako pertsonalarentzat prestakuntzako ekintza estrategikoak egiteko erabiliko dira, haien konpetentziak eta kualifikazioak hobetzeko helburuarekin.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2017KO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza Sailburuaren proposamenez, Sail honen 2017 urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Dokumentu honetan Hezkuntza Sailaren lau Sailburuordetzek eta hamar Zuzendaritzek kudeatzen dituzten diru-laguntza deialdi guztiak jasotzen dira, eta laguntza hauen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak ere zehazten dira.

Izaera programatikoa duen Plan hau Hezkuntza Sailaren politika antolatzeko tresna da, diru-laguntzen bidez, gizartearen intereserako den jarduera bat sustatzea edo helburu publikoren bat lortzea jomuga duten jardun-arloetan.

Orotara, 59 diru-laguntza lerro ditu egun Hezkuntza sailak, eta horien kopuru osoa 144.277.070 eurokoa da 2017 urterako. 59 deialdi horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, eskolaratzeko beka eta laguntzak, unibertsitate-bekak, Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen mugikortasuna errazteko laguntzak, irakasleen prestakuntzarako deialdiak, ikerketa sustatzea helburu dutenak, edo udal titulartasuneko eskoletan instalazioak egokitzera bideratuta dauden diru-laguntzak.

Hezkuntza Sailaren 2017ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Sail honen webgunean kontsultatu ahal izango da, bihartik, maiatzaren 10etik aurrera.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 2017KO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

- **Guztira 72.630.109 euro bideratuko dira 52 diru-laguntza lerroetara**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gaurko Gobernu Batzordera eraman du Sailaren 2017ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen agindua. Plan honek bakarrik jasotzen ditu diru-laguntza lerroak, beraz, ez ditu jasotzen ez diru-laguntza izendunak ezta zuzenak ere. Guztira, 72.630.109 euro bideratuko dira 52 diru-laguntza lerroetara.

Planak jasotzen dituen 52 lerro horietatik, 30 Kultura Sailburuordetzak kudeatuko ditu. Horrez gain, Etxepare Euskal Institutuak 8 deialdi bultzatuko ditu, Hizkuntza Politika Sailburuordetzak, 6; HABEk, 4; Jarduera Fisiko eta Kirol Zuzendaritzak, 3; eta Basque Team Fundazioak beste bat sustatuko du.

Plana egitearen helburua Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluko 1. zenbakiak jasotzen duena betetzea da. Diru-laguntza hauen nondik norakoak www.euskadi.eus web gunean kontsultatu ahal izango dira.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 807.000 EURO ONARTU DITU EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN SUSTATZEKO

- **Egitasmo berriak bultzatzera bideratuko da diru gehiena**

Gobernu Batzordeak 807.000 euroko kontu-saila onartu du bere gaurko saioan, euskara ingurune digitalean sustatu, garatu eta normalizatzeko. Aurrekontu honen bitartez diru-laguntza deialdi bat jarriko da abian eta ingurune digitalerako euskarazko egitasmo berriak zein aurretik martxan dauden proiektuak diruz lagunduko dira.

Deialdiaren diru gehiena egitasmo berriak bultzatzera bideratuko da, 593.500 euro, hain zuzen ere. Alde batetik, Internetarako euskarazko webgune edo beste formatu berritzaile batzuk (webserie, webirradi, podcast...) diruz lagunduko dira. Bestetik, mugikorrerako euskarazko aplikazioak sustatuko dira.

Horrez gain, 214.000 euro bideratuko dira ingurune digitalean lehendik abian dauden euskarazko egitasmoak eguneratzera, "edukiak zein funtzionalitate berriak gehituz".

Beraz, aurtengo deialdiak berritasunak dakartza eta beste era batean multzokatu dira laguntza-gaiak. Aurreko deialdietako lau multzoak (webgune berriak sortzea, lehendik abian zeuden webguneak egokitzea, software berria sortzea eta lehendik sortutako softwarea egokitzea), aurtengo bi horiek izango dira: egitasmo berriak eta lehendik abian zeuden egitasmoak. Era berean, hedabideei zuzendutako multzoa desagertu egin da.

Presidencia

GOBIERNO APRUEBA SU PLAN ANUAL NORMATIVO PREVISTO PARA ESTE AÑO

- **El Plan será publicado en el portal de transparencia IREKIA para garantizar la información, colaboración y participación de la ciudadanía**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde en su reunión de hoy al Plan Anual Normativo previsto para este año. El Plan recoge las iniciativas normativas (Leyes y Decretos) que tienen previsto aprobar cada uno de los departamentos del Ejecutivo durante 2017.

El acuerdo aprobado hoy se enmarca en lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, según la cual el Gobierno Vasco hará público un Plan Anual Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.

Una vez aprobado, el Plan será publicado en el portal de transparencia, IREKIA, a efectos de garantizar la información, colaboración y participación necesaria de la ciudadanía.

PLAN ANUAL NORMATIVO 2017

LEHENDAKARITZA

- Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Lehendakaritza.
- Proyecto de Decreto por el que se desarrolla el procedimiento para el reconocimiento y reparación de las víctimas de vulneraciones de derechos humanos, producidas en un contexto de motivación política.
- Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se regula el régimen de prestaciones económicas a centros vascos para atender necesidades asistenciales y situaciones de extrema necesidad de personas pertenecientes a las colectividades vascas en el extranjero.
- Proyecto de Decreto por el que se regulan las becas de especialización y formación de profesionales en el área de cooperación para el desarrollo.
- Proyecto de Decreto por el que se regulan ayudas a entidades de cooperación para promover procesos de cambio organizacional pro-equidad de género.
- Proyecto de Decreto por el que se crea y regula el Registro de Agentes de Cooperación para el Desarrollo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

- Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.
- Proyecto de Decreto del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.
- Proyecto de Decreto de modificación del Decreto 156/2016, de 15 de noviembre, sobre obligaciones y derechos del personal cargo público.
- Proyecto de Decreto por el que se aprueba el catálogo actualizado de cargos públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco 2017.
- Proyecto de Decreto de desarrollo de las disposiciones relativas al euskera contenidas en la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.
- Proyecto de Decreto que regule la emisión de informes para el ejercicio por parte de las entidades locales de actividades, servicios o prestaciones que no tengan el carácter de competencias propias, delegadas o transferidas.
- Proyecto de Decreto por el que se regula la actividad editorial de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3. DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

- Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras.
- Proyecto de Decreto por el que se establece la normativa marco de las ayudas previstas en el Programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020.
- Proyecto de Decreto de entidades de asesoramiento a explotaciones agrarias y forestales.
